Esas diferencias se proyectan, como es lógico, sobre sus respectivos ritmos semanales de actividades, tal como se recoge en el gráfico 4. Mujeres y varones disminuyen drásticamente la cantidad de tiempo que dedican a las actividades de trabajo profesional y formación según alcanzan el fin de semana. En razón de ello, igualan a la baja su situación durante el sábado y el domingo. Semejantes son también las dinámicas de las curvas del trabajo doméstico, que alcanza la mayor asignación de tiempo el sábado y el domingo –aunque en el caso de las mujeres con variaciones mucho más limitadas. Pero la diferencia en la cantidad de tiempo asignado a las tareas domésticas sigue manteniéndose a lo largo del entero ciclo semanal, aunque la distancia se estreche durante el sábado y domingo. Y, así, si, de lunes a jueves, las mujeres ocupadas dedican al hogar 1 hora y 41 minutos más que los varones ocupados, esa diferencia se reduce muy limitadamente a 1 hora y 21 minutos el sábado y a 1 hora y 29 minutos el domingo. La dirección del ritmo semanal puede, por lo tanto, coincidir, pero la asignación del tiempo al trabajo doméstico sigue manteniendo sustanciales diferencias. Estas diferencias se proyectan sobre las que separan el tiempo de ocio de ambos. Varones y mujeres se deslizan en una misma deriva que lleva a incrementar sustancialmente el tiempo de ocio de que disponen el fin de semana. La diferencia, con todo, es sustancial: el sábado los varones ocupados dedican 6 horas y 1 minuto al ocio y el domingo elevan ese tiempo a 7 horas y 3 minutos; por su parte, las mujeres ocupadas sólo alcanzan la cifra de 4 horas y 37 minutos el sábado y 5 horas y 31 minutos el domingo. Esas diferencias de más de hora y media casan plenamente con las que los separan en el tiempo dedicado a las actividades doméstico-familiares.

### 3.2. Cambio social y uso del tiempo: la comparación de las encuestas de presupuestos temporales de 1993, 1998 y 2003

Los datos sobre uso del tiempo se hacen más significativos cuando se abren a la comparación. Con este fin, se van a comparar los datos hasta ahora analizados con los que proporcionan las encuestas de presupuestos temporales realizadas por EUSTAT sobre la misma población y utilizando idénticos procedimientos técnicos en los años 1993 y 1998<sup>10</sup>. Esta comparación de orden diacrónico permite retratar el cambio social ocurrido a lo largo de la década que separa la fecha de la primera y de la última encuesta.

¿Es una década un tiempo suficiente para que afloren cambios sociales significativos? No hay duda de que puede serlo, pero ¿es ese tiempo suficiente para que se hagan a la luz cambios tan profundos como los que habrían de afectar a la estructura temporal de las actividades? ¿Puede cambiar significativamente a lo largo de una década el sistema del tiempo social? Los datos que proporciona la comparación de las encuestas de 1993, 1998 y 2003 invitan a contestar estas preguntas en un sentido muy definido: una década es poco tiempo para que salgan a la luz cambios tan profundos como para conmover el sistema social de actividades y sus compactas asignaciones de tiempo. En un lapso tan corto de tiempo, lo más que se puede esperar es que se produzcan algunas pequeñas conmociones y emerjan tendencias de cambio que las décadas subsiguientes se encargarán de confirmar o no.

<sup>10</sup> Véase *Encuesta de presupuestos de tiempo 1993. El uso social del tiempo*. (Vitoria, EUSTAT, 1994) y *Encuesta de presupuestos de tiempo 1998*. (Vitoria, EUSTAT, 1999).

Alde horiek, noski, jardueren asteko erritmoetan islatzen dira 4. grafikoan ikus daitekeenez. Emakumeek eta gizonek asko gutxitzen dute lan profesionalen eta prestakuntzan igarotzen duten denbora asteburua iritsi ahala. Horren arabera, behera doa larunbat eta igandeetan. Antzekoak dira etxeko lanei dagozkien kurbak ere, larunbat eta igandeetan denbora gehiago igarotzen dute –emakumeen kasuan alde txikiagoak dauden arren. Baina etxeko lanetan igarotako denboran aldeak iraun egiten du aste osoko zikloan, nahiz eta aldea txikitu egiten den larunbat eta igandeetan. Horrela, bada, emakume okupatuek asteleheneretik ostegunera gizon okupatuek baino ordubete eta 41 minutu gehiago igarotzen badituzte, alde hori gutxi murrizten da larunbatetan, ordubete eta 21 minutura, eta ordubete eta 29 minutura igandeetan. Asteko erritmoaren norabidea bat etor daiteke, beraz, baina etxeko lanetan igarotzen den denboran alde nabarmenak daude oraindik. Alde horiek islatu egiten dira biek aisian igarotzen duten denboran. Gizonak eta emakumeak norabide berean doaz, asteburuetan duten aisiarako denborak gora egiten du. Aldea, dena dela, funtsezkoa da: gizon okupatuek larunbatetan 6 ordu eta minutu 1 igarotzen dituzte aisian eta igandeetan 7 ordu eta 3 minuturaino iristen dira; aldiz, emakume okupatuek, 4 ordu eta 37 minutu besterik ez dituzte larunbatetan eta 5 ordu eta 31 minutu igandeetan. Ordu eta erdi baino gehiagoko alde horiek bat datoz erabat etxeko-familiako lanetan igarotako denboran duten aldearekin.

### 3.2. Aldaketa soziala eta denbora-erabilera: 1993, 1998 eta 2003ko denbora-aurrekontuen inkestak

Denbora-erabilerrari buruzko datuak esanguratsuagoak dira alderatzen hasiz gero. Xede horrekin alderatuko dira orain arte aztertutako datuak EUSTATEk biztanleria berdinean egindako denbora-aurrekontuen inkestetako datuekin. Inkesta horiek prozedura tekniko berdinak erabili egin ziren 1993an eta 1998an<sup>10</sup>. Alderaketa diakroniko honi esker, lehenbiziko eta azkeneko inkesta banatzen dituen hamarkada horretan egondako aldaketa soziala erretratatu ahal izango da.

Hamarkada bat nahikoa al da aldaketa sozial esanguratsuak agertzeko? Ez dago zalantzarik nahikoa izan daitekeela, baina nahiko denbora al da jardueren denborazko egiturari eragingo lieketen aldaketa sakonak azaleratzeko? Modu esanguratsuan alda al daiteke hamarkada batean denbora sozialaren sistema? 1993, 1998 eta 2003an egindako inkestetako datuek galdera horiek behin betiko erantzuteko aukera ematen digute: hamarkada bat denbora gutxi da aldaketa sakonak azaleratzeko, jardueren sistema soziala eta denboraren esleipen irmoa aldatu ahal izateko. Hain denbora laburrean aldaketa txikiak ikus daitezke gehienez eta aldatzeko joera batzuk agertu ere bai, ondorengo hamarkadetan egiaztatuko direnak edo ez direnak.

<sup>10</sup> Ikus *Denbora-aurrekontuen inkesta 1993. Denboraren erabilera soziala*. (Gasteiz, EUSTAT, 1994) eta *Denbora-aurrekontuen inkesta 1998*. (Gasteiz, EUSTAT, 1999).

	2003	1998	1993
<b>Behar fisiologikoak / Necesidades fisiológicas</b>	11:50	11:34	11:25
<b>Lan profesionala eta prestakuntza / Trabajo profesional y formación</b>	3:23	3:21	3:09
<b>Etxeko lana / Trabajo doméstico</b>	2:23	2:25	2:41
<b>Etxeko pertsonak zaindu / Cuidados a personas del hogar</b>	0:21	0:20	0:19
<b>Bizitza soziala / Vida social</b>	0:58	1:03	1:11
<b>Aisia aktiboa / Ocio activo</b>	1:17	1:12	1:10
<b>Aisia pasiboa / Ocio pasivo</b>	2:39	2:54	3:06
<b>Joan-etorriak / Trayectos</b>	1:08	1:10	0:58


Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

La tabla 8 proporciona los datos agregados que avalan ese juicio de conjunto. Utilizando la categorización de tipos de actividades con la que se ha operado hasta ahora, permiten llegar a un diagnóstico que resumen las tres propuestas siguientes: a) las diferencias entre los máximos y los mínimos de tiempo dedicados a cada tipo de actividad son siempre limitadas, no alcanzando nunca la media hora; todo induce a pensar, pues, que el sistema se ha mantenido básicamente estable a lo largo de esos diez años; b) hay un conjunto de actividades cuyos tiempos se mantienen casi idénticos o con muy pequeñas variaciones, mostrando de ese modo una más rotunda estabilidad e inelasticidad temporal de las actividades correspondientes; c) hay otro conjunto de actividades en las que aparecen cambios, aunque no sean de amplio recorrido, apreciándose a lo largo de la década estudiada una ampliación o una disminución del tiempo que se les asigna.

8. taulak ematen ditu talde osoaren epaia abalatzten duten datuak. Orain arte erabili diren jarduera moten mailaketa erabilita, honako hiru proposamenak laburtzen dituen diagnostikoa egin daiteke: a) jarduera mota bakoitzean igarotako gehieneko eta gutxieneko denboren aldeak mugatuak dira beti, inoiz ere ordu-erdira iristen ez direnak; beraz, hamar urte horietan sistema ia erabat egonkor egon dela pentsa daiteke; b) jarduera multzo batzuen denborak ia berdindu dira edo oso gutxi aldatu dira, horren bidez dagozkien jarduerak denboran egonkorak edo malgutasunik gabeak direla adierazten da; c) beste jarduera multzo batean aldaketak nabari dira, nahiz eta ez izan ibilbide handikoak, eta aztertutako hamarkada horretan igarotako denborak gora edo behera egin duela ikusten da.

Evolution del tiempo medio social de las actividades en 1993 a 2003

Jardueren batez besteko denbora sozialaren eboluzioa 1993tik 2003ra



Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

Se asiste, pues, a una dinámica dominada por la estabilidad o el mantenimiento de los fundamentales parámetros temporales de las actividades. En este entorno general, las continuidades más marcadas, aquellas en las que parece como si el tiempo se hubiera congelado, afectan a los cuidados de las personas en el hogar, a los trayectos y a dos de las variantes del ocio: la vida social y el ocio pasivo. En el resto de los capítulos se muestran algunas variaciones que un análisis más fino mostrará como significativas. El gráfico 5 permite visualizar esta dinámica básicamente estable.

El cambio más amplio es el que afecta a la disposición de tiempo para las necesidades fisiológicas. Ha aumentado de forma continua a lo largo de la década: en 2003 se sitúa 25 minutos por encima de la cifra que alcanzaba en 1993. Como se puede comprobar en la desagregación que proporciona la tabla 9, esa disposición mayor de tiempo es resultado, casi a partes iguales, del mayor tiempo que se le dedica al sueño y los cuidados personales, por un lado, y a las comidas, por el otro. Ciertamente, estas últimas van ganando un poco más de tiempo (14 minutos, frente a los 10 minutos del sueño y los cuidados), pero no se trata de una diferencia notable. Más significativo es que el incremento del tiempo dedicado a las comidas haya ocurrido en el último quinquenio. Se trata de un cambio más reciente y disruptivo.

Dinámica horretan, beraz, egonkortasuna da nagusi edo jardueren denborazko parametro nagusiak bere horretan diraute. Inguru orokor horretan jarraipen nabarmenenak, denbora ez dela aldatu diruditen haiek, etxeko pertsonak zaintzeari, joan-etorri eta aisiako bi aldagai dagozkie: bizitza sozialari eta aisia pasiboari. Beste kapituluetan aldagai batzuk ageri dira azterketa zehatzago batek esanguratsutat joko dituenak. 5. grafikoa dinamika ia egonkor hori ikus daiteke.

Aldaketarik handiena behar fisiologikoetarako dagoen denborari dagokiona da. Etengabe egin du gora hamarkadan: 2003an 25 minutu gehiago dira 1993an baino. 9. taulan dagoen desagregazioan ikus daitekeenez, denbora gehiago izate hori honakoen ondorioz da, ia hein berdinean: lotan eta norberaren zaintzan igarotzen den denboraren ondorioz eta jatorduetan igarotzen denaren ondorioz. Egia esan, azkenean hauetarako denbora apur bat gehiago hartzen da (14 minutu, lotarako eta zaintzarako 10 minutu hartzen dira) baina ez da alde nabarmena. Esanguratsua da jatorduei eskainitako denborak azken bost urteetan gorakada izana. Aldaketa berriagoa eta disruptiboagoa da.

Tiempo medio social en tipo de actividades de 1993 a 2003 (hh:mm)

9

Batez besteko denbora soziala jarduera motetan 1993tik 2003ra (oo:mm)

	1993	1998	2003
<b>Behar fisiologikoak / Necesidades fisiológicas</b>			
<b>Jatorduak eta antzekoak / Comidas y semejantes</b>	2:14	1:58	2:00
<b>Loa, zaintza mediko eta pertsonala</b> Sueño y cuidados médicos y personales	9:36	9:36	9:26
<b>Lana eta prestakuntza / Trabajo y formación</b>			
<b>Prestakuntza / Formación</b>	0:32	0:38	0:35
<b>Ordaindutako lana / Trabajo retribuido</b>	2:49	2:43	2:34
<b>Etxeko lana / Trabajo doméstico</b>			
<b>Kudeaketak, erosketak eta antzekoak</b> Gestiones, compras y semejantes	0:43	0:40	0:44
<b>Sukaldea, garbiketa eta antzekoak</b> Cocina, limpieza y semejantes	1:40	1:44	1:57
<b>Aisia pasiboa / Ocio pasivo</b>			
<b>Jolasak, ikuskizunak, aktibitaterik eza</b> Juegos, espectáculos, inactividad	0:32	0:28	0:33
<b>Komunikazio eta hedapen bideak</b> Medios de comunicación y difusión	2:05	2:26	2:33

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

Frente al suave incremento del tiempo dedicado al descanso y las comidas, a lo largo de la década el tiempo dedicado a las actividades de reproducción material de las condiciones de vida ha sufrido una deriva contradictoria: el tiempo que se emplea en trabajar y formarse ha ido incrementándose, mientras el empleado en el trabajo doméstico ha ido acortándose. Las cantidades en que se cifran esos dos cambios divergen-

Atsedean hartzeko eta jatorduetarako denborak apur bat gora egin du hamarkadan, baina bizi-baldintzetako erreproduzio materialerako jardueri eskainitako denborak alde-rantziz egin du: lanean eta prestakuntzan igarotzen den denbora haziz joan da eta etxeko lanetan igarotzen dena txikituz. Bi aldaketa dibergente horien kopuruak txikiak dira: 1993-2003 artean lanean-prestakuntzan igarotzen den den-

tes son pequeñas: entre 1993 y 2003, el tiempo de trabajo-formación se ha incrementado en 14 minutos, mientras que el del trabajo doméstico ha disminuido en 18 minutos.

Se puede especificar más en qué se han concretado esas transformaciones. Tal como muestran los datos de la tabla 9, el tiempo dedicado a la formación ha sufrido incluso una ligera disminución, siendo el tiempo invertido en el trabajo profesional el que ha crecido: ha pasado de las 2 horas y 34 minutos de 1993, a las 2 horas y 49 minutos de 2003; un cuarto de hora de incremento, pues. Por su parte, la disminución del tiempo dedicado a las tareas domésticas resulta de un recorte en el tiempo dedicado al capítulo clave de la «cocina, limpieza y semejantes», que se ha acortado en 17 minutos en el corto lapso de 10 años. Estamos, pues, ante una evolución en la que el tiempo de trabajo a realizar fuera del hogar se ha incrementado y el dedicado a las tareas centrales del hogar (preparación de comidas, limpieza) ha disminuido. Todo apunta a que han sido los cambios en la situación de la mujer en el mercado de trabajo extradoméstico los causantes de estas pequeñas pero significativas variaciones.

El tiempo de ocio también ha sufrido variaciones (Gráfico 5), pero esas variaciones sólo son de alguna relevancia en el capítulo del ocio llamado pasivo. En su conjunto, las transformaciones del tiempo libre han ido en el sentido de su reducción: entre 1993 y 2003 se le dedica casi media hora menos; no parece, pues, que haya una aproximación a la sociedad

bora 14 minutu hazi da eta etxeko lanetakoa 18 minutu gutxitu.


Gehiago zehatz daiteke aldaketa horiek zertan zehaztu diren. 9. taulako datuek adierazten dutenez, prestakuntzan igarotzen den denborak behera egin du pixka bat eta lan profesionalan igarotzen denak egin du gora: 1993ko 2 ordu eta 34 minututik 2003ko 2 ordu eta 49 minutura igaro da; ordu laurden hasi da, beraz. Bestetik, etxeko lanetan igarotzen den denbora gutxitu egin da «sukaldea, garbiketak eta antzekoak» kapituluaren denbora gutxiago igarotzen baita: 10 urte hauetan 17 minutu gutxitu da. Beraz, dugun eboluzio honetan etxetik kanpo egiten den lanean igarotzen den denborak gora egin du eta etxeko lanetan igarotzen denak (jatorduak prestatu, garbiketak) behera. Dirudienez, etxetik kanpoko lan-merkatuan emakumearen egoera aldatu izanak eragin ditu aldaketa txiki baina esanguratsu hauek.

Aisian igarotzen den denborak ere aldaketak izan ditu (5. grafikoa), baina aldaketa horiek nolabaiteko garrantzia aisia pasiboa deiturikoan bakarrik dute. Osoan hartuz gero, denbora libreko aldaketak murrizketagatik izan dira: 1993-2003 artean ia ordu-erdi gutxiago eskaintzen zaio denbora libreari, ez dirudi, beraz, aisiako gizartera hurbiltzen ari garenik. Dena

*Evolución del tiempo medio social de necesidades, trabajo profesional, doméstico y ocio según género*

6

**Beharren, lan profesionalaren, etxeko lanaren eta aisiaren batez besteko denbora sozialaren eboluzioa generoaren arabera**



Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003



del ocio. En cualquier caso, la mengua de tiempo fundamental ha ocurrido en el dedicado al ocio pasivo, que, habiendo ocupado en 1993 3 horas y 6 minutos, se retrae a 2 horas y 39 minutos en 2003. En este capítulo el cambio fundamental es el que afecta al consumo de los medios de difusión y comunicación que, como se muestra en la tabla 9, sufre una mengua de casi media hora (28 minutos), ocurrida, por lo demás, en el último quinquenio.

También desde una perspectiva comparativo-diacrónica son de enorme relevancia las diferencias en comportamiento y uso del tiempo conectadas con las diferencias de género. El Gráfico 6 permite observar esa deriva, mostrando las diferencias en las dinámicas protagonizadas por mujeres y varones.

Las derivas a lo largo de la década de varones y mujeres comparten rasgos comunes, pero también difieren. Comparten al menos dos rasgos relevantes: unos y otras han incrementado, casi en idéntica medida, el tiempo que dedican a las necesidades fisiológicas; además, ambos han perdido tiempo disponible para las actividades de ocio, aunque los hombres en mayor medida que las mujeres. En cualquier caso, y como se podrá comprobar más adelante, sigue manteniéndose la diferencia en la cantidad de tiempo libre de que unos y otras disponen. El sistema parece estable, en este sentido. Con todo, se apuntan algunas diferencias significativas. La primera es que, a lo largo de esos diez años, los varones han mantenido muy estable el tiempo que dedican a cualquier tipo de trabajo, ya sea el que se realiza en casa, ya el de fuera. Su mundo ha sufrido muy pocas transformaciones en este sentido; se muestra granítico e inmovible tal como apuntan los datos: en comparación con lo que hacían en 1993, dedican 1 minuto menos en 2003 al trabajo-formación y 7 minutos más al trabajo doméstico y al cuidado de las personas en el hogar. En el caso de las mujeres, por el contrario, se apuntan cambios significativos y, a no dudar, entrelazados. Por un lado, han incrementado a lo largo de esos diez años el tiempo que emplean en el trabajo retribuido y las actividades de formación en 31 minutos. Por otro lado, y de forma casi simétrica, han disminuido en 43 minutos el tiempo dedicado a los trabajos domésticos y el cuidado de las personas.

El retrato dinámico resulta pues claro: el sistema es básicamente estable en su conjunto; en el caso de los varones, se asiste más bien a una fosilización de los datos de empleo de tiempo en actividades laborales a lo largo de la década; por el contrario, las mujeres han cambiado de forma significativa: invierten bastante menos tiempo en las actividades domésticas, mientras que el tiempo dedicado al cuidado de personas permanece estable; además, invierten algo más de tiempo en las actividades ligadas al trabajo retribuido. La transformación más relevante parece haber acontecido en el hogar: de 4 horas y 16 minutos dedicados a sus tareas en 1993, a 3 horas 31 minutos en 2003; es decir, una disminución del 18% del tiempo antaño empleado en cocinar, limpiar y semejantes.

El sistema de actividades parece así algo conmovido. Hasta qué punto lo está realmente es algo difícil de fijar. Tal vez el gráfico 7 permita introducir alguna luz en este asunto. Representa visualmente los datos del problema tomando en consideración la carga de trabajo diferencial de varones y mujeres, es decir, la diferencia en la cantidad de tiempo que cada uno emplea en la realización del conjunto de tareas ligadas al trabajo (trabajo retribuido, formación, trabajo doméstico y cuidado de las personas del hogar).


dela, murrizte hori aisia pasiboan gertatu da funtsean: 1993an 3 ordu eta 6 minutu igarotzen ziren eta 2003an 2 ordu eta 39 minutu. Kapitulu honetan funtsezko aldaketa komunikazio eta hedapen bideen kontsumoari dagokiena da, 9. taulan ikusten denez ia ordu-erdi murriztu da (28 minutu) eta azken bost urteetan gertatu da, gainera.

Ikuspegi alderatzaile-diakroniko honetatik oso garrantzitsuak dira denbora jarreran eta erabileran dauden aldeak genero aldeekin zerikusia dutenak. 6 grafikoan ikusten da alde hori, emakumeen eta gizonen dinamiketako aldeak ageri baitira.

Gizon eta emakumeek hamarkadan izandako joerek antzeko ezaugarriak badituzte, baina baita aldeak ere. Bi ezaugarri nagusitan bat datoz: bai gizonek bai emakumeek ia neurri berdinean gehitu dute behar fisiologikoetan igarotzen duten denbora; gainera, biek aisiarako denbora galdu dute, nahiz eta gizonek gehiago emakumeek baino. Dena dela, eta aurrerago ikusiko dugunez, aldeak daude batzuek eta besteek duten denbora librean. Zentzu horretan sistemak egonkorra dirudi. Baina badira alde esanguratsuak ere. Lehenbizikoa da hamar urte hauetan gizonek mantendu egin dutela edozein motatako lanean igarotzen duten denbora, nola etxean hala kanpoan. Gizonen munduak aldaketa gutxi izan du zentzu horretan: granitiko eta aldagaitza da datuek erakusten dutenez: 1993arekin alderatuz gero, lan-prestakuntzan minutu bat gutxiago igarotzen dute 2003an eta 7 minutu gehiago etxeko lanetan eta etxeko pertsonak zaintzen. Emakumeen kasuan, aitzitik, aldaketa esanguratsuak egon dira, eta, segurua, elkarriz lotuak. Batetik hamar urte hauetan 31 minutu egin du gora ordaindutako lanean eta prestakuntza jardueretan igarotzen duten denborak. Bestetik, eta ia modu simetrikokan, 43 minutu egin du behera etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen igarotzen dutenak.

Argazki dinamikoa, argia da beraz: sistema egonkorra da orokorrean; gizonen kasuan, lanean jardueretako denbora-erabilera datuak fosilizatu egin dira hamarkadan, aldiz, emakumeen kasuan modu esanguratsuan aldatu da: dezente denbora gutxiago igarotzen dute etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen igarotzen dutena nahiko egonkor dago; gainera, denbora zertxobait gehiago igarotzen dute ordaindutako lanari lotutako jardueretan. Aldaketarik esanguratsuenak etxean gertatu dela dirudi: 1993an etxeko lanetan 4 ordu eta 16 minutu igarotzetik 2003an 3 ordu eta 31 minutu igarotzera; hau da, lehen sukaldean, garbiketean eta antzekoetan igarotzen zen denbora %18an gutxitu da.

Jardueren sistema apur bat ukituta ageri da horrela. Zenbateraino dagoen zehaztea zaila da. Agian 7. grafikoak argituko gaitu pixka bat. Arazoaren datuak bisualki ageri dira kontuan hartuta gizonen eta emakumeen lan karga diferentziala; hau da, lanari (ordaindutakoari, prestakuntzari, etxekoari eta etxeko pertsonak zaintzeari) loturiko jarduerak egiten bakoitzak igarotzen duen denboran dagoen aldea.



Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003

Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

A lo largo de la década la carga de trabajo que asumen varones y mujeres ha ido disminuyendo: en el primer quinquenio de forma más pronunciada; en el segundo, procediendo a una cierta «restauración» de la situación anterior, aunque sin volver sin más a ese punto de partida. Es de destacar que, comparando los datos de 1993 y 2003, la carga de trabajo de los varones ha disminuido muy ligeramente: sólo 6 minutos. Al hilo de esa limitadísima disminución, ha ocurrido una más pronunciada que afecta al tiempo dedicado al ocio, que se ha retraído en 43 minutos. El caso de las mujeres es distinto: disminuyen menos que los varones su tiempo de ocio, pero contraen mucho más que éstos el tiempo que dedican al trabajo, al hogar y al cuidado familiar que pasa de sumar 6 horas y 47 minutos en 1993 a sumar 6 horas y 35 minutos en 2003. Las mujeres trabajan, pues, menos tiempo que antes. ¿Significa esto que se han suprimido las diferencias en el tiempo de trabajo que las separaba históricamente del varón? No se han suprimido, sino que se han limitado, aunque siguen siendo muy significativas. En efecto, la diferencia que existía en el tiempo de la carga de trabajo de los varones y las mujeres alcanzaba, en perjuicio de éstas, 1 hora y 17 minutos en 1993; diez años más tarde, en 2003, esa diferencia se cifra en 59 minutos; es decir, en 10 años, una mengua de 18 minutos en las diferencias en la carga de trabajo. Esta situación se traslada a la disposición de ocio: también en 1993 los varones disponían de 1 hora y 9 minutos para el ocio más que las mujeres; 10 años más tarde, esa diferencia ha disminuido a 44 minutos.

La conclusión parece clara: el sistema de separación del tiempo de trabajo en razón del género sigue siendo potente, sobre todo a causa de la fuerte servidumbre que supone para la mujer la asignación sesgada del trabajo doméstico. Con todo, hay datos que apuntan cambios, lentos, titubeantes, pero perceptibles. Acontecen sobre todo en razón de la incorporación creciente de la mujer a la esfera del trabajo retribuido y, sobre todo, a causa de la disminución del tiempo que le dedica al hogar, disminución que no va acompañada de un apreciable incremento del tiempo que a esas tareas dedican

Hamarkadan behera egin du gizon eta emakumeek hartzen dute lan kargak: lehenbiziko bost urteetan nabarmenagoa izan da, bigarreanean aurreko egoera nolabait ere «lehengoratu» egin da, nahiz eta abiapuntura besterik gabe itzuli gabe. Azpimarragarria da 1993 eta 2003ko datuak alderatuta gizonen lan kargak apur bat behera egin izana: 6 minutu besterik ez. Beherakada txiki horren ildotik handiago bat ere gertatu da aisiari dagokionez, 43 minutu gutxitu baita. Emakumeen kasua desberdina da: aisiako denbora gizonena baino gutxiago murriztu da, baina gizonen baino gehiago gutxitu dute lanean, etxeko lanetan eta familia zaintzen igarotzen duten denbora, 1993an 6 ordu eta 47 minutu igarotzen zituzten eta 2003an 6 ordu eta 35 minutu. Emakumeek lehen baino denbora gutxiago igarotzen dute, beraz, lanean. Zer esan nahi du horrek, historikoki gizonarengandik banatzen zituen laneko denboran dauden aldeak kendu egin direla? Aldea ez da kendu, murriztu egin da, nahiz eta oso nabarmena izaten jarraitzen duen alde horrek. Gizon eta emakumeen lan kargan zegoen aldea ordubete eta 17 minutukoa zen 1993an, emakumeen kaltera; hamar urte geroago, 2003an, alde hori 59 minutukoa da, hau da, 10 urtean lan kargako aldea 18 minutuan murriztu da. Egoera hori aisiara igaroz gero, 1993an gizonen emakumeek baino ordubete eta 9 minutu gehiago zituzten aisiarako eta 10 urte geroago 44 minutura murriztu da aldea.

Ondorioa argia da: lan denboran dagoen banaketa handia da oraindik ere generoaren arabera, batez ere, emakumearentzako neskametza handia delako etxeko lanak partzialki berarentzat izatea. Dena dela, aldaketak iragartzen dituzten datuak badira, mantsoak, zalantzakorrak, baina hauteman daitezkeen aldaketak. Emakumea ordaindutako lan munduan gero eta gehiago sartzeagatik ari dira gertatzen eta, batez ere, etxeari eskaintzen dion denborak behera egin duela, nahiz eta beherakada horrekin batera ez egon gizonen lan horiei eskaintzen dien denboran hazkunde nabarmenik.

los varones. El hogar sigue siendo sustancialmente un espacio cuyas tareas asume, le guste o no, la mujer; ahora le dedica menos tiempo, pero sigue siendo ella la que asume sus tareas.

El retrato no se difumina, pero se hace más complejo, cuando se toma en consideración la incorporación de la mujer al trabajo retribuido y a la formación, y se contrasta esa situación con la de las amas de casa y la de los varones ocupados y estudiantes. Las tablas 10 y 11 aportan los datos para esas comparaciones.

Etxeko lanak, gustatu edo ez, emakumeak hartzen ditu bere gain, espazio hori berea da; orain denbora gutxiago igarotzen du, baina emakumea da lan horiek bere gain hartzen dituen.

Argazkia ez da lausotu, baina konplexuagoa da, emakumea ordaindutako lanean eta prestakuntzan sartu dela kontuan hartuz gero eta egoera hori alderatzen bada etxekoandreekin eta gizonetzko okupatu eta ikasleenarekin. 10. eta 11. taulek ematen dizkigute alderaketa horretarako datuak.

*Evolución del tiempo medio social de varones ocupados y estudiantes (hh:mm)*

10

**Gizonezko okupatu eta ikasleen batez besteko denbora sozialaren eboluzioa (oo:mm)**

	Gizonezko okupatuak Varones ocupados			Gizonezko ikasleak Varones estudiantes		
	2003	1998	1993	2003	1998	1993
<b>Behar fisiologikoak / Necesidades fisiológicas</b>	11:29	10:51	10:58	11:17	11:24	11:21
<b>Lan profesionala eta prestakuntza / Trabajo profesional y formación</b>	5:42	6:21	6:07	5:18	4:35	3:43
<b>Etxeko lanak / Trabajos domésticos</b>	1:01	0:59	0:48	0:14	0:33	0:52
<b>Etxeko pertsonak zaindu / Cuidados a personas del hogar</b>	0:15	0:19	0:15	0:01	0:02	0:00
<b>Bizitza soziala / Vida social</b>	0:57	0:58	1:04	1:55	1:41	2:13
<b>Aisia aktiboa eta kirolak / Ocio activo y deportivo</b>	1:06	0:51	0:55	1:29	1:18	1:12
<b>Aisia pasiboa / Ocio pasivo</b>	2:16	2:14	2:37	2:18	3:01	3:25
<b>Joan-etorriak / Trayectos</b>	1:23	1:27	1:12	1:27	1:26	1:09

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003

Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

*Evolución del tiempo medio social de mujeres ocupadas, estudiantes y amas de casa (hh:mm)*

11

**Emakume okupatu, ikaste eta etxekoandreen batez besteko denbora sozialaren eboluzioa (oo:mm)**

	Emakume okupatuak Mujeres ocupadas			Emakume ikasleak Mujeres estudiantes			Etxekoandreak Amas de casa		
	2003	1998	1993	2003	1998	1993	2003	1998	1993
<b>Behar fisiologikoak</b> Necesidades fisiológicas	11:22	11:01	10:55	11:44	11:22	11:25	12:05	11:53	11:28
<b>Lan profesionala eta prestakuntza</b> Trabajo profesional y formación	4:56	5:19	4:52	5:04	4:45	5:04	0:12	0:07	0:18
<b>Etxeko lanak / Trabajo doméstico</b>	2:24	2:25	2:55	0:57	0:56	1:10	5:08	5:28	5:55
<b>Etxeko pertsonak zaindu</b> Cuidados a personas del hogar	0:32	0:25	0:27	0:03	0:03	0:04	0:31	0:29	0:39
<b>Bizitza soziala / Vida social</b>	0:47	0:47	0:54	1:31	1:47	1:40	0:48	0:49	0:51
<b>Aisia aktiboa eta kirola</b> Ocio activo y deportivo	0:48	0:49	0:40	0:57	0:46	0:48	1:27	1:17	1:06
<b>Aisia pasiboa / Ocio pasivo</b>	1:43	1:46	2:01	2:00	2:46	2:22	3:10	3:10	3:01
<b>Joan-etorriak / Trayectos</b>	1:26	1:24	1:10	1:42	1:34	1:25	0:37	0:46	0:37

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003

Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

La deriva del tiempo del trabajo doméstico es especialmente significativa. Ya las amas de casa muestran una disminución nada desdeñable del tiempo dedicado a las tareas del hogar: esos menesteres ocupan todavía 5 horas y 8 minutos de me-

Etxeko lanetan igarotzen den denboraren joera bereziki esanguratsua da. Etxekoandreek etxeko lanetan igarotzen duten denboran kontuan hartu beharreko beherakada dute: 2003an oraindik ere egunero 5 ordu eta 8 minutu igarotzen zi-

dia diaria en 2003, pero, en comparación con lo que hacían en 1993, han disminuido sus prestaciones en 47 minutos. En sintonía con esta situación, también las mujeres ocupadas han disminuido el tiempo que les dedican; no es drástica la disminución, pero es significativa: de 2 horas y 55 minutos en 1993 han pasado a 2 horas y 24 minutos en 2003. ¿Qué ha ocurrido con los varones? Lo que los datos muestran es que han seguido una también suave deriva de cambio, pero en el sentido inverso. Y, así, los ocupados, que en 1993 dedicaban sólo 48 minutos al hogar, pasaron a dedicarle 59 minutos en 1998 y alcanzan 1 hora y 1 minuto en 2003. Pasos de caracol, pero pasos. El problema radica en que la diferencia se sigue manteniendo en lo sustancial: más de 2 horas de sobretabajo doméstico de las mujeres ocupadas.

Evidentemente, las mujeres ocupadas trabajan menos tiempo en actividades de trabajo retribuido que los varones. La diferencia se situó siempre alrededor de la hora, habiendo alcanzado en 2003 sus valores más bajos: frente a las 5 horas y 42 minutos que trabajan profesionalmente los varones, las mujeres emplean 4 horas y 56 minutos; la distancia se estrecha, cifrándose entonces en 46 minutos. Con todo, para proceder a una comparación más fina, es mejor tomar en consideración los tiempos de sus respectivas cargas de trabajo (Tabla 12).

ren arren, 1993an egiten zutenarekin alderatuz gero 47 minutuz gutxitu dute denbora. Egoera horrekin bat, okupatutako emakumeek ere gutxitu egin dute lan horietan igarotzen duten denbora: beherakada ez da handia, baina esanguratsua da: 1993an 2 ordu eta 55 minutu igarotzetik 2003an 2 ordu eta 24 minutu igarotzera pasa dira. Zer gertatu da gizon-zkoekin? Datuek erakusten dutenez aldatzeko joera txiki bat dute, baina alderantzizko zentzuan. Horrela, bada, okupatuek 1993an 48 minutu bakarrik igarotzen zituzten etxeko lanetan, 1998an 59 eta 2003a ordubete eta 1 minutu bat. Urrats txikiak, baina urratsak. Arazoa da funtsezkoan aldeak hor dirauela: bi ordu baino gehiagoko aldea emakume okupatuen etxeko lanari dagokionean.

Okupatutako emakumeek gizonen baino denbora gutxiago igarotzen dute ordaindutako laneko jardueretan, noski. Aldea ordubete ingurukoa da beti eta 2003an zegoen alderik txikiena: gizon profesionalak 5 ordu eta 42 minutu igarotzen zituzten eta emakumeek 4 ordu eta 56 minutu; aldea txikituz doa eta orduan 46 minutukoa zen. Dena dela, alderaketa zehatzagoa egiteko, hobe da bakoitzaren lan kargaren denborak kontuan hartzea (12. taula).

*Evolución de la carga de trabajo y ocio de varones ocupados, mujeres ocupadas y amas de casa (hh:mm)*

12

**Gizon eta emakume okupatuoen eta etxekoandreen lan kargaren eta aisiaren eboluzioa (oo:mm)**

	Lan karga Carga de trabajo	Aisia Ocio
<b>Emakume okupatuak / Mujeres ocupadas</b>		
2003	7:52	3:18
1998	8:09	3:22
1993	8:14	3:35
<b>Gizon okupatuak / Varones ocupados</b>		
2003	6:58	4:09
1998	7:39	4:03
1993	7:10	4:36
<b>Etxekoandreak / Amas de casa</b>		
2003	5:51	5:25
1998	6:04	5:16
1993	6:52	4:58

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 1993, 1998 eta 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 1993, 1998 y 2003

El ama de casa, en consonancia con lo que se acaba de destacar, ha visto disminuir a lo largo de la década la carga de trabajo que asumía, lo que le ha supuesto también un incremento en su tiempo libre: en el primer caso se ha liberado de 1 hora y 1 minuto; en el segundo, ha acumulado 27 minutos más de ocio. Muy distinta es la que deriva de los ocupados, sean varones o mujeres. Ambos han sufrido una disminución, aunque no drástica, del tiempo libre. Además, y esto es lo más significativo, han mantenido, con pequeñas oscilaciones hacia arriba y hacia abajo, el peso del tiempo de la carga de trabajo que, en el caso de las mujeres, ha acabado por disminuir de las 8 horas y 14 minutos a las 7 horas y 52 minu-

Etxekoandreak, azpimarratu denarekin bat, hamarkada horretan zuen lan karga gutxitzen joan zaio eta denbora libre gehitu: lehenbizikoari dagokionez, ordubete eta minutu bat gutxitu zaio eta bigarrenari dagokionez, aisiarako 27 minutu pilatu ditu. Oso desberdina da okupatuen joera, izan gizonak edo emakumeak. Biei denbora libre gutxitu zaie, nahiz eta ez asko. Gainera, eta hau da esanguratsua, lan kargaren denboraren pisuari eutsi egin diote gorabehera txikiekin eta emakumeen kasuan gutxitu egin da azkenean: 8 ordu eta 14 minutukoa izatetik 7 ordu eta 52 minutukoa izatera igaro da. Gizonen kasuan, 7 ordu eta 10 minutukoa izatetik 6 ordu eta 58 minutukoa izatera igaro da. Egoera nahiko egonkorra da

tos, y en el caso de los varones ha pasado de 7 horas y 10 minutos a 6 horas y 58 minutos. La situación se muestra bastante estable a lo largo del tiempo –desde luego mucho más que en el caso de las amas de casa. Y con la estabilidad de la situación se reafirma la estabilidad de las diferencias entre ocupados y ocupadas.

Ciertamente, una comparación entre sus respectivas cargas de trabajo muestra que las diferencias se van limando. Pero que se limen no significa que no se mantengan en lo sustancial. En este sentido es significativo que esa diferencia, que en 1993 se cifraba en 1 hora y 4 minutos de inferior carga de trabajo del varón, en 1998 se acertara a 30 minutos, para volver a crecer a 54 minutos en 2003. La deriva del tiempo de ocio es congruente: las mujeres trabajadoras disponían en 1993 de 1 hora y 1 minuto menos de tiempo libre; en 2003, esa diferencia se ha acertado en 10 minutos (alcanza 51 minutos).

### 3.3. Comparación inter-espaciales: la C.A. de Euskadi, España y la UE

La comparación a lo largo del tiempo o diacrónica proporciona mucha información y es la clave para calibrar el alcance de los procesos de cambio social que están en marcha. Pero los datos hasta ahora expuestos se hacen también especialmente significativos si se procede a la comparación inter-espacial o inter-societal, es decir, aquella comparación que pone juntos, señalando sus similitudes y deferencias, los datos sobre empleo del tiempo en distintos territorios o países.

En lo que sigue se va a proceder a una sumaria comparación de los datos disponibles sobre la C. A de Euskadi con los que, para fechas muy semejantes y resultado de técnicas de indagación, categorización de actividades y cómputos de los tiempos empleados también muy semejantes, se dispone en la actualidad sobre el conjunto de España y distintos países de Europa<sup>11</sup>.

denbora guztian –etxeoandreen kasuan baino askoz egonkorragoa. Eta egoeraren egonkortasunarekin indartu egin da gizon eta emakume okupatuaren arteko aldearen egonkortasuna ere.

Egia esan, horien lan kargak alderatuz gero, aldeak gutxitzen ari direla ikusten da. Baina gutxitzeak ez du esan nahi funtsean berdin dirautenik. Zentzu horretan esanguratsua da alde hori -1993an ordubete eta 4 minutu gutxiagoko lan karga zuten gizonek, 1998an 30 minutura murriztuta zegoen eta 2003an 54 minutura igo zen berriro. Aisiako denboraren joera kongruentea da: 1993an emakume langileek ordubete eta minutu bat gutxiago zuten denbora librean; 2003an, aldea 10 minutu murriztu da (51 minutu gutxiago dituzte).

### 3.3. Espazio arteko alderaketa: Euskal AE, Espainia eta EB

Denboran egiten den alderaketak edo alderaketa diakronikoak informazio asko ematen du eta abian dauden gizarteko alderaketa prozesuen neurria kalibratzeko giltzarriak dira. Baina orain arte azalduetako datuak bereziki esanguratsu bihurtzen dira espazio arteko edo gizarte arteko alderaketa eginez gero, hau da, alderaketa horrek lurralde edo herrialde desberdinetako denbora-erabilerari buruzko datuak elkarrekin jartzen ditu eta aldeak eta antzekotasunak adierazten ditu.

Aurrerantzean, labur bada ere, alderatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko datuak eta Espainiako osokoak eta Europako herrialdeetakoak, denak ere antzeko datetan eginak eta antzeko tekniken (indagazioa, jardueren sailkapena eta erabilietako denboren konputuak) ondorioak dira<sup>11</sup>.

*Tiempo medio social según género en la C.A. de Euskadi y España (hh:mm)*

13

*Batez besteko denbora soziala generoaren arabera Euskal AEn eta Espainian (oo:mm)*

	Euskal AE C.A. de Euskadi			Espainia España		
	Guztira Total	Gizonak Varones	Emakumeak Mujeres	Guztira Total	Gizonak Varones	Emakumeak Mujeres
<b>Behar fisiologikoak / Necesidades fisiológicas</b>	11:50	11:51	11:48	11:22	11:24	11:21
<b>Ordaindutako lana / Trabajo retribuido</b>	2:49	3:41	2:01	2:39	3:37	1:44
<b>Prestakuntza / Formación</b>	0:32	0:33	0:33	0:43	0:42	0:43
<b>Etxeko lanak eta etxeko pertsonak zaindu</b> Trabajo doméstico y cuidados de personas del hogar	2:44	1:22	4:00	2:59	1:30	4:24
<b>Aisia / Ocio</b>	4:54	5:17	4:33	4:56	5:31	4:42
<b>Joan-etorriak / Trayectos</b>	1:08	1:14	1:03	1:10	1:15	1:05

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta (DAI) 2003  
Fuente: EUSTAT. Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) 2003

